

En homenaje a D. Julio de Urquijo

Sesión de la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao

Excmo. Sr. Presidente de la Excma. Diputación; señoras, señores:

Un saludo, breve pero efusivo, a la Excma. Diputación de Vizcaya, de agradecimiento por la distinción que nos dispensa en cobijarnos en estos momentos en el seno de su Palacio Provincial.

La Academia de la Lengua Vasca cumple este año los cincuenta de su fundación, fundación en la cual la Diputación vizcaína, juntamente con las Diputaciones hermanas vasco-navarras, tuvo su relevante participación, como es sabido. Con esta ocasión de los cincuenta años, la Academia, recordando aquella tan señalada efemérides, ha tratado de realizar durante el año una especie de «devolución de visita» a cada una de dichas Corporaciones provinciales.

Por acuerdo de la Academia a principio del año conmemorativo, en sesión celebrada en Bilbao precisamente, la docta Corporación viene celebrando su reunión mensual, acompañada de un acto académico público, sucesivamente en las capitales, Pamplona, Bayona, Vitoria, aparte las reuniones normales que celebra en el Palacio Provincial de San Sebastián, reservando el último acto, como distinción especial, a esta capital de Vizcaya, haciendo coincidir el acontecimiento con un homenaje, debido y aún no realizado, a una de las figuras más prestigiosas de nuestra Academia desde su fundación, como fue la relevante de D. Julio de Urquijo.

Tal es la coyuntura en que tengo el honor de intervenir en este momento, agradeciendo desde luego a la Excma. Diputación el marco que nos brinda para un acto tan vizcaíno como el que tratamos de celebrar.

Intervendrán en él personas muy calificadas que nos darán a conocer —a recordar, mejor dicho— la egregia figura del homenajeado D. Julio.

Ahora bien: la disertación principal, a cargo de D. Ignacio de Urquijo, sobrino del homenajeado, irá en lengua castellana. Mas como quiera que el acto está organizado por la Academia de la Lengua Vasca, era de rigor que su presidente tuviera también su intervención en la lengua de la Academia, lengua a cuyo cultivo se dedicó con tanto acierto y tan desinteresadamente nuestro homenajeado.

Por lo cual, y con su venia, señor Presidente, paso a mi quehacer, que será breve, en atención a la premura de tiempo con que contamos.

Jaun-andreok:

Gure Euskaltzaindiaren gaurko jai au, D. Julio de Urkixo zana-ren omenez egin nai degu, merezi ere bait zuan Deusto'ko seme argi ark omen aldi bat Bilbao batean.

Itz-aldi ederrik entzungo dezute laister gai oni buruz. Bañan nik ere, D. Julio leendabiziko euskaltzaiñetan bat izan zan Euskaltzain onen Lendakari naizenez, eta D. Julio bera apur bat ezagutu nuanez, nik ere zerbait esan nai dizutet.

Bestek esan bear dizutenik nik lardaskatu gabe —edo-ta al dan gutxienik lardaskatuaz— mintza nai nakizute. D. Julio'ren lan eder baten alderditxo bat ukituko det: bere «RIEV» bikañaren alderditxo bat, guk ere berarengandik gure euskal-lanetarako zerbait on ikasi dezagun.

* * *

«RIEV», «Revista Internacional de Estudios Vascos», D. Julio'ren agitada berezi, berarizko, berebiziko bat izan zan: nortasun aundiko ta begi-argidun euskaldun bizkaitar baten egitادا. Erderaz «gesto prócer» eta «gesto de vasco clarividente» esango litzakena.

D. Julio de Urkixo'k eta D. Resurreccion María Azkue'k ba dute gauza askotan elkarren antza. Biok bizkaitar-jeniodun, titan-jeniodun azaltzen zaizkigu euskal-lanetan. Bizkaitar-jeniodun. Beste askok —besterik geienak— askoren artean egiten dutena, bizkaitar batek «berak bakarrik asi, ta berak bakarrik garatu». Jenio bizkaitarra.

Askotan esan oi degu, eta egia da, Izkuntza baten Iztegi osoa, ez dala izan oi, gizon bakar baten lana, lagun-arte baten, ekipo baten lana baizik. Erderazko Iztegia, *Real Academia Española*'rena dan bezela; eta berdin bide da frantzesezkoa ere... Azkue'k berak bere eskuz egin zuan bere Iztegi bikaña, eta berak bere boltxikotik argitaldu. Berdin egin bait zuan beste bere lan titaniko dan Kantutegi-giarekin ere: berak bere eskuz bildu, erririk erri, Kantutegi arrigarrri ortako «milla ta bat» abestiak...

Nortasun aundiko egitada, *gesto prócer*; «bizkaitar keñada» esango gendukeana.

Bide ber-beretik ibilli zan, gure D. Julio Urkixo ere, bere RIEV «Revista Internacional de Estudios Vascos»'ekin.

Revista-kontuan —estudiotarako Aldizkari-kontuan, alegia—, Aldizkaria sortu baño leenago, lagun-arte bat sortu oi da. Aldizkaria eratu, argitaldu eta zabalduko duan lagun-arte bat. Urkixo Jauna baño leenago, gure artean ere, ola oitu izan da. «Euskal-erria» donostiar Aldizkaria ola sortu zan. José Manterola izan zuan Zuzendari; bañan Aldizkaria 1880 aldean sortu zuana, «Consistorio de Juegos Florales Euskaros» izan zan.

Berdin gertatu bait zan, «Euskal-erri» ura, berrogei bat urteren buruan, argalduxe-ta, Aldizkari berri bat sortu bear izan zanean ere: Bazkun batek sortu zuala «Euskal-erriaren alde» eta aren babesean «Euskal-esnalea». Gregorio Mujika izan zuan Zuzendari; bañan Bazkun bat sortzalle ta jabe. «Euskal-esnalea» Bazkuna, donostiar eta tolosar Jaun adoretsez batez ere osatutako Bazkun langille-langillea...

Berdin gertatu bait zan Bilbao'n ere, beste Aldizkari burrukari batekin: «Euzkadi»'rekin. Eta berdin baita Baiona'n ere «Gure Herria»'rekin etab. Guztiok beti sortzalle ta eusle, Bazkun bat, Lagun-arte bat izan dutela.

Bañan, berriz ere, leen aipatu ditugun bi titan bizkaitarrak izan zirala lege orren bereizkuntza: berak bakarrik beren kontura olako Aldizkari bana sortu zutenak: Azkue ta Urkixo, berriz ere; Azkue'k bere «Euskalzalea» —Aldizkari itxuraz xotilla, bañan eragitez azkar izandako «Euskalzalea»—; eta Urkixo Jaunak bere RIEV, «Revista Internacional de Estudios Vascos»

* * *

D. Julio, egitada ontan oro «Jaun» eta «Zaldun» azaldu zitzaigun. «Boltxikoz», ba zezakean —bear ere bait da ortarako boltxiko on ta mukuru—. Urkixo Jauna, jaun aberatsa zan. Familiazko egorak ere laguntzen zion, bere txanponak egitada ortan arraixkatzeko. Besteren batek, olako boltxiku ioria, *yate* bat erosten erabilliko zuan; edo-ta Diputado ateratzeko auteskunde batzuetan parra-parra eralkiko. D. Julio'k beste biderik eman zion bere diruari: RIEV bat sortu; bañan ez bere burua goratzeko, Euskeraren on aundi baterako baizik.

* * *

D. Julio'k, bere begi argiz, eusko-kulturaren arloan utsune bat ikusten zuan. Iñoren errurik gabe esan bait liteke, utsune ori ba

zala: ots, Euskeraren auzia «erritxiki-auzi» biurtzeko arraiskua; erri-
txiki-auzi, sail estu, labur. Euskeraren auzia, gure arteko auzi roman-
tiku, oso romantiku, bañan ez ain eragille biur zitekeala, alegia...
Eusko-ikaskuntzari, eusko-estudioai «internacional» egitea konbeni-
zitzaien: ori zan, D. Julio'ren begi argi, zorrotzak ikusten zuana:
internacional egitea...

Bera zan, ura, benetan internacional. Bere bizikeraz eta bere iza-
keraz. Paris bazan, Viena bazan, Berlin bazan, Londres bazan... Eta
an aietako euskaltzaleak —bai bait ziran, dakizuten bezela Humboldt
batengandik onuntz— an aietako euskaltzaleak ezagutzen zituan eta
tratutzen: zala Schuchardt, zala Vinson, zala Uhlenbeck, zala Gavel:
zein ez? Guzti aien euskal-jakinduriari erreten bat, bide bat ipiñi
bearra zegon, kategori eder bateko Aldizkari baten bitartez... Eus-
keraren on aundirako...

Eta, esan-da-egin, berealako batean erantsi zizkion eskuak la-
nari...

Guzti ura etzan izan amets bat, amets zoro bat. Or daude 40 tomo
eder, beste ainbeste urteren buruan argitalduak, lan bikaiñez orni-
tuak, euskeraz, erderaz, frantzesez, alemanez, inglese... 40 urteren
buruan —Europa'ko gerra aundia bitarteko— gure gerra arte,
1907'tik onutz argitalduak...

* * *

Utsune bat aipatu dizuet leentxuago; arraixku bat, Euskeraren
auzia txikiegi egiteko arraiskua. Bañan nik uste, D. Julio'k etzuala
egin bere egitekoa arraixku orrengatik bakarrik, ezta orrengatik be-
reziki ere; Euskerarentzako bentaja eder bategatik baizik. Berak
gauza ortan etzuan «ezetzera» jokatu, «baietz» eder batera baizik.
Ikusten bait zuan, Europa'n Euskerarentzako nolako iritzi ederra
zegon... emen, gure inguruan, bestelako giro kaxkarra egon arren...
Giro europatar eder ori eskuratu nai izan zuan, Euskeraren onerako.
Etzuan jokatu iñoren kontra, ere besteran lanak mendratzeagatik,
alegia, ezta bere alderdiaren alderako ere, «guztion» probetxurako
garbi-garbi baizik... Eta, izan ere, ala izan danik, ezin dezake iñork
ukatu... Ez noa ezer esatera, auxe besterik: gaur dan egunean Eus-
kerari buruz zerbait jakin nai duan orok, D. Julio'ren RIEV era jo-
tzen duala, iturririk onenera bezela...

* * *

Ondo bete zuan D. Julio'k, bere egunetako zeregiña. Garaiari
zegokiona. Europa'ra begira egin bear zana.

Gaur daukagun giroak, bear bada, beste gauza bat eskatzen digu.
Euskeraren iraupena, Euskeraren bizia degu gaurko problema. Eus-

kerari bizirik iraunerazteko, euskaldunoi euskeraz mintzaerazteko, itz-egifinerazteko, euskeraz irakurrerazteko eta idazterazteko problema...

Orregatik gaurko giroan esaera eta slogan bi dauzkagu guztion ahoan: «Euskaldunai euskeraz», «Euskaldunak euskeraz». Ala berean gaur, ezer bada-ta, Euskerari iraunerazteko Ikastolak sortzea degu problema; Ikastolak eta Asterokoak: «Zeruko Argia» Donostian, eta «Herria» Bayonan, eta berdin *ad usum privatum*'go aldizkaritxoak fraidetegietan: dala «Yakin», dala «Laiaketan» etab. Ots: euskerazko liburuak, eta euskerazko Argitaldariak... Euskeraz itz-egin, euskeraz irakurri, euskeraz idatzi: Euskerari bizirik eutsi. Eta pozik asko esan dezakegu zerbait egin dala, eta bide onean goazela gai ontan.

Ala ere, ezin esan dezakegu, RIEV'en bide «internacionalak» utzi bear ditugunik; «Internacional»-bideak, alegia; Europa'ren bideak. Euskeraren problema, Europa'ren problema izango da beti; Europa'ren problema, Gizadi osoaren problema. «O.N.U.»'ren eta «U.N.E.S.C.O.»'ren problema dala, esan bait dezakegu; eta berdin «Mater et Magistra»'ren problema, Kristau-Ekumenismuaren eta Internazional guztien problema, Giza-kulturaren problema sakon eta miña dan ezkerero. Europa'k ezin lezake bertan beera utzi gure Euskeraren problemarik Europa'ko Izkuntzarik zaarrenaren problema etxe-barrutik eta auzotik, bietatik arakatu bearreko problema da guztiontzat gure Euskeraren problema. Eta gaur dan egunean, orregatik daukagu Euskaltzaindian eratua, datorren udazkenerako, Españaiko izkuntza txiki guztientzako Symposium bat Nafarroan.

«Internacional» izateari dagokion aldetik ori.

Beste orrenbeste esan bait dezakegu RIEV'ek «estudios» dion orren aldetik ere. «Estudio», *ikaskuntza*, alegia; Euskeraren Teorika; Lingustika. Bide au ere ez bait dezakegu esan, gaur bide «superatua», bide defasatua danik. Teoriak beti bear du leku bere, praktikaren aldamenean, Izkuntzaren problematika on baten barruan. Teoriak ez dio inoiz kalterik egin praktikari. Teoriak osatu egiten du praktika.

Eta ez noa ezer geiago esatera. Ikasgai au ematen digula, baizik, gaur omen eta goratarre egiten diogun D. Julio Urkixo Jaunak, bere «Revista Internacional de Estudio Vascos»'en bitartez.

Bide ontatik jarraituaz, milla gauza geiago esan liteke; baiñan ez noa jarraitzera.

Nik ez bezela, gauza oiek dakizkiten batzuek esango dizkitzute, nik esan nintzakean baño obeto; eta etzaitzuet aspertu nai geiago.

LEKUONA'tar MANUEL,